

HERNANIKO EUSKARAREN EGUNA

Euskararen egunak, erabilera bultzatzea ez delako ahuntzaren gauerdiko eztula

Hernanin ez dira diferente, han ere euskararen erabilera soziala herrenka dabil. Abenduaren 3an, Euskararen Egunean, ez da miraririk gertatuko, baina euskarak egun ofiziala izateak badu bere balioa. Abenduaren 3aren bueltan, hernaniarrek Euskararen Eguna baino Euskararen Egunak antolatzea erabaki dute.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

HERNANIN (GIPUZKOA) 20.000 lagun inguru bizi dira. Azken 20 urteetan urrats garrantzitsuak eman dira euskararen ezagutzan. Herritarren %60 euskalduna da eta %20 ulertzeko gai da. Indarra hartu du euskarak hainbat eremutan, hala nola, udalaren barne eta kanpo lanean, elkarteetan eta irakaskuntzan. Ordea, beste hainbesteko indarra sumatzen zaio gaztelaniari kale erabilera, lagunartekoan, familia-koan... erabilera informala deitzen zaion horretan. Arrazoiak mila eta konplexuak dira; hizkuntza bat edo beste erabiltzeko ohiturak, erosotasuna, ez jabetzea nolakoak diren norberaren hizkuntza ohiturak...

Hernanin antolatu dituzten Euskararen Egunen helburu nagusia hizkuntzaren erabilera soziala bultzatzea da, jakinda ez dela inolaz ere erraza horrelako erronkari aurre egitea.

Euskarak kalea, familiak eta lagunartea hartzea ez da egun batetik besterako helburua, ez da aldi bateko esku-hartzeak lortuko duen zer-bait. Hiztunen mentalitate, uste eta jokaerak daude tarteko eta horietan eragiteko parte-hartze zabala eta aktiboa beharrezkoak dira. Euskararen Egunen antolatzaileen iritziz, herriko mugimendu sozialak, elkarteak, erakunde publikoak eta herritarrak egoeraz jabetzea, eta ondorioz, lanean hastea ezinbestekoa da.



HERNANIKO KRONIKA

Hernaniko institutuko ikasleak iaz ikastetxean egindako ekitaldian.

Erabilera soziala bultzatzeko ekimenek iraunkorrak behar dute izan, baita jasangarriak ere. Alegia, Hernaniko eragileen ikuspegitik, ahaleginak egingarriak eta elkarbanatuak izatea ezinbestekoa da, bai baliabide aldetik (ekimen xumeak eta herritarrek antolatutakoak), bai denbora aldetik (urtetik urtera jarraipena emanda).

Herriko hainbat eragile urte hasieraz geroztik ari da lantzen erabilera sozialaren gaia eta giro horretan erabaki zuten abenduaren 3rako

zerbait antolatzea. Azaldu berri dugun filosofiari eutsiz, eragile ugari bildu dira lan honetara: Berria lagunaren elkarte, Dobera Euskara elkarte, AEK Euskaltegia, Udal Euskaltegia, BanaizBagara elkarte, Elizatxo ikastola, Langile ikastola, Inmakulada ikastetxea, Hernani Institutua, Udaleko Euskara Zerbitzua, eta hainbat herritar.

Tour linguistikoa

Kolore guztietako tourrak jarri dira boladan: ondare historikoa erakus-

Mintzodromoa

Hamabost minutuko hiru elkar-
rriketa txanda izango dira eta
txanda bakoitzean gai baten
inguruan arituko dira lau lagun.
Euskaltegian euskara ikasten ari
direnentzat da, ikasten aritu eta
erabiltzen ez dutenentzat, lotsa
ematen dietenentzat, hitz egite-
ko aukerarik ez dutenentzat.
Hiztun horiek euskara dakitene-
kin elkartuko dira mahai-ingur-
uan. Euskaltegi barruan egiten
den lana kalera ateratzeko modu
bat da Mintzodromoa, eta era
berean, euskal komunitateare-
kin loturarik ez duten herritar-
rekin zubi lana egin dezan nahi
dute antolatzaileek.



HERNANIKO KRONIKA

lazko *Euskaraz bizi nahi dut* lasterketan, heraniar txikiak.

teko tourrak; tour feministak, emakumeek ere osatu duten historia azaleratzekoak; sabela dantzan ipintzen duten tour gastronomikoak... Hernanin, tour linguistikoa bidez, euskararen galerei eta aurre-
rapausoei erreparatuko diete, eta horretarako bospasei tokitan gelditu eta azalpenak emango dituzte. Kontalariak ordu eta erdiko bidaia gidatuko du eta geldialdi bakoitzean, garai hura bizi izan zuten pertsonak egingo dituzte kontakizunak. Geldialdi horietako batean eskola hartuko dute gaitzat. XX. mendeko eskola zigortzaileak arituko dira, Agustin Iturriagaren eskola berritzaileak, Errepublika garaiko eskolaz, Francoren garaiko hezkuntzaz, eta nola ez, ikastolen sorreraz. Gerraurreko Hernanik ere badu zeresana; Lore Jokoez, Olerti egunez, Jose Ariztimuño *Aitzolez* jardungo dute. 1936ko gerra ondoren, debeku eta errepre-
sio giroan, xume bazen ere lanean aritu ziren mugimenduei emango zaie errepasoa. Beste geldialdi

Aste osoko egitaraua

Azaroak 30: Irekiera ekitaldia. Ondoren, *Euskaraz bizi nahi dut* lasterketa, Euskararen Kontseiluarekin elkarlanean antolatuta.

Abenduak 1: Tour linguistikoa. XX. mendean nagusiki, Hernanin euskarak izan dituen ahulgune eta indarguneen azalpenak.

Abenduak 2, 3 eta 4: Ikastetxeetako ospakizunak. Biteri kultur etxea irekita egongo da eta gazte-
txoek egindako apaingarri eta film laburrak eskainiko dira.

Abenduak 5: Mintzodromoa.

Abenduak 6: Kale antzerkia.

batean immigrazioak kultur eta hizkuntza ikuspegitik izan duen eragina aztertuko dute.

Franco hil ondoren piztaldia izan zen Hernanin, beste mila herritan bezala. Kultur taldeak hasi ziren sortzen, gau eskolak, ikastolak, administrazioa euskalduntzeko pausoak ematen. Gidariak kontakizuna XX. mendearen amaiera arte luzatuko dute eta orduko giroaz hitz egingo dute: euskara elkarleen sorreraz, euskara hainbat esparrutan normalizatu izanaz eta abar.

Tour linguistikoa bidez, herri-

tarrak gaur egungo egoerara iristeko egin den ibilbideaz jabetzea nahi da. Hernani guztiz herri euskalduna izan baitzen, eta gero ia galdu zuen hizkuntza. Galeraren zergatiak eta egoera horretatik ateratzeko egin diren ahaleginak, izen-abizenekin, ezagutarazi nahi dituzte. Eta batez ere gazteek, jakin dezatela herritarrek galzorian zen hizkuntza berreskuratzeko konpromisoa hartu zutela, eta konturatu daitezela berreskurapen prozesua ez dela amaitu. ■



Babeslea: EMUN

HIZKUNTZA
ZERBITZUAK

KULTURA
ZERBITZUAK

ANIZTASUN ETA IMMIGRAZIO
ZERBITZUAK

PARTE HARTZE
ZERBITZUAK

ARRASATE | ANDOAIN | BERRIOZAR | DERIO
www.emun.com